

RUGBYA

Merezitako omenaldia

Ilunabarreko 20.30etan, 1987 eta 1991ko Frantziako selekzioak Pascal Ondartsen agurrean

Miarritzeko Aguilera merezitako agurra jasoko du gaur Pascal Ondarts meharretarrak. Iazko denboraldia burutu ondoren rugbya uztea erabaki du, Parisen 91-92ko finalean iragarri bezala. Pascalen aurretik euskal jokalaririk asko aritu da goi mailan, eta batez ere lehen lerroan: Irrazabal, Azarete, Dospital eta abar. Hemendik aurrera Laskubek eta Gonzalezek jarraitu beharko diote harrobi emankor horri.

KOLDO ALDUNTZIN / DONOSTIA

Horrela mintzatu zaigu Pascal Ondarts lapurtarra: «Badira 17 urte Miarritzen ari naizela eta momentua denean onerako edo txarrerako deliberatu dut uztea. Joan den urteko finalean deliberatua nuen urte pare bat egingen nuela eta gero utzi. Orduan, Euskal Herrian horrela pasatzen da, baita beste anitz lekutan ere, hitz emaiten dugunean bete egiten dugu».

Hortaz, agur xume eta hunkigarria prestatu dio Pascali Miarritze taldeak, Serge Blanco rugby arloko burua eta Udala bertan izango direlarik. Ez da handiki prestaturiko festa egingo, bere historian hurbilen izan



Pascal Ondarts, erdian, 1992an finalerdietan Grenobleren kontra jokatuako partiduan.

duen jendearekin baizik. Horregatik, Gonzalez, Sanoko, Riviere, Dagerre eta Arrieta euskaldunak gain, 87 eta 91ko Mundialetan Frantziako selekzioarekin aritu zirenak joango dira Aguilera. Arratsalde osoz izango da

festa. Arratsaldeko 5etatik aurrera etengabe zazpikako rugbya. Zazpi t'erdietan beterean arituko norgehiagoka eta 8.30etan aipaturiko partidu handi hori.

Ondartsen garaipenik historikoa beharbada, 87an All

Blacksi Nantesen irabazi ziotenekoa izango da. Jokalaririk erregularrak izan da Pascal, gogorra mele bilduetan zein joko irekian, eta era beran, harroin postuan aritzeko dinamikoa. Ez da, beharbada, izugarri handia gorputzez, gor-

Fitxa

- Meharraren jaioa, 1956ko apirilaren 1ean (37 urte). Gaztetan Bidarten jokatu ondoren, Miarritzen aritu da beti.
- 43 aldiz jantzi du Frantziako elastikoa, selekzio desberdinekin.
- Beti harroin postuan aritu da.
- Bere palmaresa: Grand Chelema V Nazioetako txapelketan, 1987an; Munduko Txapelketako finala Zeelanda Berriaren kontra, 1987an; V Nazioetako Txapelketa 1988an. Miarritzekin, B multzoko finalerdia 1989an; Du Manoir Kopako finala 1989an; A multzoko finala 1992an.

putz sendokoa bai ordea. Bere kabuz entrenamendu asko egin du. Hemendik aurrera ordea, denbora gehiago pasatu beharko du Aguilera ostatuan lanean.

Parte hartuko dutenen artean Frantziako 87ko selekzioa hamabostekoa haxe izango da: Ondarts, Dubroca, Garuet, Lorieux, Condom, Champ, Rodriguez, Erban, Berbizier, Mesnel, Charvet, Sella, Lagisket, Camberabero eta Blancok osatuko dute. 91koa, Laskube, Marocco, Galart, Roumat, Benazzi, Cabannes, Cecillon, Benetton, Galthie, Penaud, Saint-Andre, Lacroix, Viars, Hontas eta Lafond jokalariek osatuko dute gaurkoan.

Ondarts: «Norberak deliberatu behar du rugbya uztea, bertze inork esan gabe»

K.A. / DONOSTIA

EGUNKARIA.— Fisikoki, Pascal, primeran zaude oraindik. Zergatik utzi duzu orduan rugbya? Agian azken bi denboraldi nahastu hauengatik?

PASCAL ONDARTS.— Ez, ez da hori. Ez da gogorrak izan direlako bi urte hauek. Orain arte lanean ari nintzen Lionais enpresarekin, azken urtean ostatuan ere bai, eta badakizu, biziki gogorra izan da enetako zeren eta ortziralean eta larunbatean bannuen biziki jende jateko eta gero gaez askotan behar nituen 300 edo 400 kilometro egin automobilean, rugbyan jokatzeko, berriz gibelerat lana egiteko. Gauza da ni bezala, 17 urtetan arituta rugbyan, hobe da norberak deliberatzea rugbya uztea, bertzeek esan gabe.

EGUNKARIA.— Zergatik beti Miarritzen?

ONDARTS.— Baionara ere jo nuen lagun batek proposatuta, baina haien zat, ttipia nintzen. Gero konturatu ziren Miarritzen



Pascal Ondartsek 17 urte eman ditu rugbyan jokatzeko.


ari nintzelarik, kalitatea banuela eta behatzera etorri ziren. Euskaraz badago ordea esaera bat: 'Hitza hitza da', eta zer nahi duzu? Ni euskalduna naiz, goizik

esposatu nintzen eta Miarritzen mailan aritzeko kilometro asko egin behar nituen kanporat. Gainera, ene andreak ez du sekula partitu nahi ukan.

MIKEL LABOA




SORTAN Bele

XAXIMIKU

ABUZTUAK 14
LARUNBATA

GOIZUETAKO PILOTALEKUAN
GAUEKO 10'30etan

SARRERA: AURRETIK 800 pzta. EGUN BEREAN 1.000 pzta.

ANTOLATZAILEA: ARGIA